



LARRAULGO UDALA  
(GIPUZKOA)

## BANDOAK

### -ETXEKO ZABORRAK

Azken hilabete hauetan, herriko zakarrontzi txikietan, etxeetako zabor poltsak botatzen direla konturatu gara.

Zakarrontzi txikiak kalean sortu daitezkeen zabor txikiak biltzeko eginkizuna dute, beraz, etxeetan sortzen den zaborra herrian zehar ditugun zabor gunetara eramatea eskatzen dizuegu.

### -HERRI OSTATUKO SUKALDEA

Herri Ostatuko sukaldea zaharkituta gelditu zenez, arazoak ematen zituelarik, Udalak erabaki zuen aipaturiko sukaldea aldatzea.

Hori dela eta kendutako sukalde zaharra Udalaren eskuetan dago. Nahiz eta sukalde hau, sei suz eta labe batez osatua egon, su hauetako batzuek ez dute ondo funtzionatzen.

Udalak, aipaturiko sukaldea bota aurretik, herritarrei eskaini nahi die, norbaitek interesa badu apirilaren 30a baino lehen, Udaletxe honetan bere izena eman beharko du. Baldin eta pertsona batek baino gehiagok interesa izango balu, euren artean zozketa egingo dela jakinarazi nahi da.

Besterik gabe, agurtzen naiz

Larraulen, 2013ko apirilaren 9an

Alkatea

